

# Erlezaintzako jardueraren ingurumen-utilitateek eta utilitate sozioekonomiko eta soziokulturalek duten garrantzia

Olatz Etxegarai-Legarreta, Valeriano Sanchez-Famoso  
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, UPV/EHU

Enpresa gutxi eskaintzen dituzte erleek eta erlezaintzak eskaintzen dituzten beste ondasun eta zerbitzu desberdin; produktu horiek gehienak ukiezinak dira, eta, beraz, balioztatzeko konplexuak. Aniztasun horrek eta kanpo-efektu positiboak sortzen laguntzeak ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-interesak bateratzen dituzte eta erlezaintza-jardura bioekonomiaren ezinbesteko zati bihurtzen dute. Hala ere, bere berezitasuna gorabehera, askotan oharkabean pasatzen da edo ez da behar bezala ezagutzen.

Aukerak dibertsifikatu eta sektorean eragile berriak agertzen diren testuinguruan, lan honen helburua da erleen eta erlezainen arteko binomioan oinarrituta sortzen diren utilitateen multzoa —ondasun eta zerbitzuak— miaztea eta identifikatzea, baita haien arteko harremanak aztertzea ere. Amaitzeko, etorkizuneko ikerketa-ildoak proposatuko dira.

GAKO-HITZAK: Erlezaintza · Erleak · Ingurumena · Ekonomia · Soziokultura.

## The importance of environmental utilities in the beekeeping activity and the socioeconomic and sociocultural utilities

Few companies offer such a wide range of goods and services as honey bees and beekeeping, products that are mostly intangible and therefore complex to value. This diversity and its contribution to the generation of positive externalities bring together environmental, economic and social interests that make beekeeping an indispensable part of the bioeconomy. However, despite its uniqueness, it often goes unnoticed or is not sufficiently recognized.

In a context of diversification of opportunities and the appearance of new actors in the sector, the objective of this paper is to identify and analyze the set of utilities —goods and services— generated by the honey bee-beekeeper binomial, as well as to analyze the existing relationships between them. Finally, future lines of research will be proposed.

KEY WORDS: Beekeeping · Honey bees · Environment · Economy · Socioculture.

## 1. Sarrera

Beste ikerketa batzuetan frogatu den bezala (Gidey eta Kibrom, 2010; John *et al.*, 2017; Patel *et al.*, 2021), erlezaintza jarduera inklusiboa eta askotarikoa da. Jarduera horrek, alde batetik, onura multisistemikoak sortzen dizkio gizarteari (Aryal *et al.*, 2020; López i Gelats *et al.*, 2017), eta, bestetik, landa-eremuen garapen jasangarriari laguntzen dio (Hanley *et al.*, 2015; Klein *et al.*, 2003), baita garapen iraunkor globalari ere (Vrabcová eta Hájek, 2020; Wood *et al.*, 2018). Aurreko guztia egiteko, ondasunak eta zerbitzuak sortzen dira, eta, sarritan, familien *per capita* diru-sarrerak handitzea dakar berekin (Patel *et al.*, 2021), bai eta aukera handiak ere, industriari lotutako zuzeneko zein zeharkako lanpostuak sortzen laguntzen baitu (Hanley *et al.*, 2015; Klein *et al.*, 2003).

Patel *et al.* (2021) egileen arabera, polinizazioa funtsezko zerbitzua da ekologiarentzat, ekonomiarentzat eta gizartearentzat, zerbitzu horren eraginez ondasun fisiko edo ukigarriak (adibidez, elikagaiak) eta ondasun ukiezinak sortzen baitira (hala nola biodibertsitateak eragindako edertasun eszenikoa).

Berriki egindako ikerketek frogatzen dute interes handia dagoela erleek egiten duten polinizazio-zerbitzuarekiko (Aryal *et al.*, 2020; Hanley *et al.*, 2015; Klein *et al.*, 2018). Erleenganako interes handi hori sortzen duena da arrazoi faktoreaniztunengatik intsektu polinizatzaileak murrizten ari direla mundu osoan, baita hainbat espezieetako erleak ere (López i Gelats *et al.*, 2017), eta horrek kezka sortu du hainbat eremutan; hala nola laboreen produktibitatearen galeran eta elikagaien segurtasun globalean izan dezaketen eraginean.

Testuinguru horretan, oraindik badira erleek sortutako onurak aintzat hartu ez direnak, guztiz ukiezinak direlako eta esploratu gabe daudelako (Patel *et al.*, 2021). Kontuan izan behar da gizakion beharrak eta gizakiak gauzez eta bizidunez (gure kasuan, erleez) egiten duen erabilera direla existitzen denaz kontzientzia hartzeko lehen urratsa (Etxegarai-Legarreta *et al.*, 2011), eta hori beharrezkoa da ondorengo balorazioetarako eta neurriak aplikatzeko.

Erleetatik eta erlezaintzatik sortzen diren onura nagusien zerrenda hiru multzo handitan biltzen da: ingurumenekoa, sozioekonomikoa eta soziokulturala. Bloke horiek, funtsean, modu estankotan aztertu dira; hala ere, modu konektatuan aztertu behar direla ikusi da; izan ere, utilitate batzuk hiru alderdietatik ikus daitezke, eta, horrela, banaka sortzen dituzten sinergiak areagotu egiten dira.

Literaturaren berrikuspen sistematiko sakona egin ondoren, datu-base nagusietan artikulua gako-hitzen bidez bilatuz, gure ikerketak bi helburu ditu. Lehen helburua da erleetatik sortzen diren utilitateak (ondasunak eta zerbitzuak) detektatzea eta aztertzea. Bigarren helburua, erleen utilitateak elkarren artean nola erlazionatuta egon daitezkeen aztertzea, eta estankook ez direla frogatzea. Helburu horietatik eratorritako ondorioek administrazioek garatu beharreko politikak baldintza ditzakete.

Artikuluaren gainerakoa honela antolatzen da: lehenik, erlezaintza zer den azalduko dugu. Bigarrenik, erlezaintzak sortzen dituen onurak (ingurumenekoa,

sozioekonomikoak eta soziokulturalak) zehatz-mehatz aztertuko ditugu. Hirugarrenik, utilitateak erlazionatzeko zenbait argudio garatuko ditugu. Azkenik, inplikazio praktikoekin, etorkizuneko ikerketa-ildoekin eta azken ondorio batekin itxiko dugu artikulua.

## 2. Erlezaintzaren kontzeptua

Guk egindako berrikuspen literariotik ondorioztatu da ez dagoela erlezaintza terminoaren definizio bakarra. Masukuk (2013) dioena oinarri hartuta, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera da, erleak kudeatzeko arte, zientzia eta/edo negozio gisa definitua, eta helburu du ezta, argizaria eta erleen beste produktu batzuk ekoiztea, norberaren kontsumorako eta industria-erabilerarako. Caronek (2010: 23) gaineratzen duenez, «produktuak edo polinizazio-zerbitzuak saltzeko asmoz erleak helburu komertzialekin zaintzeko teknika» ere bada, —baita zaleentzat ere, aisiarako nahiz irabazi-asmorako izan—. Pajuelok (2007: 267) honela definitzen du: «Erleak ganadu gisa maneiatzea, ustiategietan»; eta Vélez *et al.* (2016) egileek definizio hori zehaztu eta ustiapen «arrazionala» dela adierazten dute. Kudeaketa horren helburua da loraldiaren garai nagusia eta erle helduen populazio-une handiena bat ekartzea, sortzen dituzten produktu eta zerbitzuak lor daitezen sustatzeko (Caron, 2010).

Administrazio publikoek jarduera ekonomikoak sailkatzen dituzte EJSN (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala) kode bat esleituz. Sailkapen horren arabera, erlezaintzako jarduera abeltzaintza-jardueraren barruan dago, «abeltzaintzako beste ustiategi batzuk» kategorian. Aldi berean, abeltzaintza-jarduera hori lehen sektoreko edo nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreetako bat da (CE) 858/2004 Arautegiaren arabera. Pérez de Obanos-Cortaberriaren ustez (2011), erlezaintza ez da oso ezaguna gizartearentzat, eta, horregatik, erlezaintza ez da abeltzaintzako jardueratzat hartzen, nahiz eta produktuak eta errenta sortzen dituen abeltzaintza produktiboa izan praktikaz duenarentzat (Picher, 2017), eta azken urteotan erlezaintza arreta handiagoa jasotzen ari bada ere (Ritter, 2014), animalien ekoizpe-neko beste sektore batzuk baino gutxiago izaten jarraitzen du (Vallat, 2014) (ikus 1. irudia).



1. irudia. Erle-sektorea. Iturria: Geuk egina.

Beste lehen sektore batzuetan ez bezala, erlezaintzaren sektorean ingurumen-interesak hurbilago daude interes ekonomiko eta sozialetatik, eta, ondorioz, lehen sektore berezia da (Gibbs eta Muirhead, 1998), gainerakoan aldean desberdina, eta bioekonomiaren ezinbesteko zatia (Vrabcová eta Hájek, 2020).

Erlezaintza nekazaritzaren jarduera osagarria izan ohi da, eta horrek diru-sarrera gehigarriak sortzea ahalbidetzen die ekoizleei (Dolores-Mijangos *et al.*, 2017; Famuyide *et al.*, 2014), sarrera-iturri nagusia izan gabe. Landa-inguruneko beste lan batzuekin batera ere egin daiteke, hala nola basogintzarekin, baliabide partekatuak dituztelako (Hill eta Webster, 1995).

Oro har, nekazaritza eta abeltzaintzako lehen mailako jardueretarako lurraren faktorea erabiltzen da, baina erlezaintzarako ez da zuzenean erabiltzen (Bedascarrasbure, 2011); bai, ordea, beste oinarrizko baliabide edo kapital mota batzuk (Bradbear, 2005): naturalak (eztitarako erleak, landare loratuak, ura, bestek beste); giza baliabideak (esperientzia, trebetasunak, ezagutza); materialak edo fisikoak (instalazioak, garraioa, ura, energia), sozialak (lagun, senide, sare sozial eta elkarteen laguntza; merkaturatzeari buruzko informazioa, ikerketen emaitza) eta ekonomikoak (eskudirua, maileguetarako irisgarritasuna, dirulaguntzak).

Bestalde, Erdósek (2018) uste du nekazaritzak eta abeltzaintzako zenbait jarduerak —erlezaintzak, kasu— onurak dakarzkietela elkarri edo sinergiak sortzen dituztela, eta, beraz, bien arteko lankidetzak mesedegarria izan daitekeela.

### 3. Erlezaintzak sortzen dituen utilitateak

Oro har, erlezaintzari lotutako zerbitzu ekosistemikoen artean polinizazioa eta habitaten kontserbazioa daude (Al-Ghamdi *et al.*, 2017; Bradbear, 2005; López i Gelats *et al.*, 2017; Madras-Majewska eta Majewski 2016). Hala ere, badago korrante berri bat ekonomia, ingurumena eta kultura zerbitzu ekosistemikoen artean sartzen dituen (Aryal *et al.*, 2020; Klein *et al.*, 2018). Zerbitzu horiek zuzenekoak zein zeharkakoak izan daitezke (Ahmad *et al.*, 2007) eta zenbait mailatan aurkez daitezke: norbanako/enpresa mailan, eskualde-mailan eta biologia/ingurumen mailan (Allen-Wardell, 1982).

#### 3.1. Ingurumen-utilitateak

Ingurumen-onuren artean, gure ustez, bereizi behar dira polinizazio-zerbitzua eta erleek ekosistemetan eta ingurumenean sortzen diren perturbazioen bioadierazle gisa eskaintzen duten zerbitzua (Famuyide *et al.*, 2014; Hilmi *et al.*, 2011; Pérez-Piñero, 2017).

##### 3.1.1. Polinizazioa

Erleak ei dira polinizazio-lanik handiena egiten duten intsektuak (Pantoja *et al.*, 2014); hau da, agente polinizatzaile garrantzitsuenak, mundu-mailan (López i Gelats *et al.*, 2017; Klein *et al.*, 2007; Pizarro eta Montenegro, 2012). Gainera, nekazaritza-laboreen polinizatzaile gisa funtsezko eginkizuna betetzen dute (Aizen eta Harder, 2009; Verde, 2014). Beraz, erlezaintza eta erleak zerbitzu ekosiste-

mikoen hornitzaileak dira (Al-Ghamdi *et al.*, 2017; López i Gelats *et al.*, 2017; Madras-Majewska eta Majewski 2016). Oraintsuko azterketek (Aryal *et al.*, 2020; Kline eta Joshi, 2020; Patel *et al.*, 2021) polinizatzaile basatiek egiten duten lan polinizatzailearen balioa ere azpimarratu dute; beraz, eztitarako erleek, beste intsektu batzuek bezala, zeregin garrantzitsua betetzen dute eta ingurumenean inpaktu positiboa eragiten dute, polinizazio handiagoaren bitartez ekosistemen oreka bermatzen baitute (Ahmad *et al.*, 2003; Famuyide *et al.*, 2014; Gidey eta Kibrom, 2010). Gehiago polinizatuta, lore-aniztasunari eustea ziurtatzen da (Aryal *et al.*, 2020), eta, beraz, hazi eta landare gehiago sortzen dira (Gidey eta Kibrom, 2010), basa-bizitzarako elikagai-iturri direnak (Bradbear, 2009) eta lurzorua degradazio txikiagoa gertatzen laguntzen dutenak (Ahmad *et al.*, 2003). Vrabcová eta Hájek (2020) egileen arabera, erleek gizadiarentzat dituzten onuren % 90 inguru polinizatzeko gaitasunean datza. Ondorioz, ekosistemarentzat eta gizakiarentzat funtsezko zerbitzua denez (Kluser *et al.*, 2010), oreka ekologikoa eta dibertsitate biologikoari eustea bermatzen dituelako (Toni eta Djossa, 2015), ondasun publikotzat har litezke.

Majewskik dioenez (2011), ezti-erleen garrantzia gehiago areagotzen duten zenbait faktore daude: a) produktu fitosanitarioen erabilera okerra, b) ingurumen-kutsadura, c) monolaborantza-eremu zabalek polinizatzaileei elikadura-iturrietara iristeko sortzen dizkieten zailtasunak, d) ekoizpen-teknologiak eta e) nekazaritzakoa ez den lur-eremuak ezartzen duen muga.

### 3.1.2. Planetaren eta klima-aldaketaren osasun-bioadierazleak

Polinizazioaren zerbitzua ez da erleek eskaintzen duten ingurumen-abantaila edo -onura bakarra; izan ere, joera klimatikoen aldaketaren adierazle zehatzenetakotzat hartzen dira (Gordo eta Sanz, 2006) eta funtsezko eginkizuna betetzen dute ekosistemetan eta ingurumenean nahasmenduak sortzen dituzten bioadierazle gisa. Horren arrazoia da aparteko ezaugarriak eta sentikortasuna dutela ingurunean diren aldaketak hautemateko (Gutiérrez, 2016).

Bioadierazletzat hartzeko arrazoi nagusiak honako hauek dira: a) produktu kimiko edo fitosanitarioekiko sentikortasun handia; b) beren ezaugarri morfologiko, biologiko eta portaerazkoen ondorioz airearen, landareen, uraren eta lurzorua laginak hartzeko duten egokitasuna; c) nonahikoak direla eta edozein eremu geografikotan koka daitezkeela, landako nahiz hiriko eremuetan polinizatzen eta d) kostu ekonomiko txikiagoa dutela, adierazle fisiko eta kimikoekin alderatuta (Famuyide *et al.*, 2014; Gutiérrez eta al., 2011; Vandame *et al.*, 2012). Argizariak, eztiak eta polenak eskaintzen duten informazio-iturriagatik jotzen dira erleak bioadierazletzat, baita beren aldaketa demografiko, portaera-aldaketak eta biometaketarengatik ere (López i Gelats *et al.*, 2017). Berriki egindako ikerketek frogatu dute erleek mikroplastikoen bidezko kutsaduraren biltzaile gisa jardun dezaketela (Edo *et al.*, 2021). Halaber, aireko metal astunen edukiaren biomonitorre gisa erabil daitezke (Carrillo eta Gallardo, 2009; Van Der Steen *et al.*, 2012). Izurriteen zeharkako kontrolatzaileak izateko funtzioa ere aitortzen zaie, elikagaia lortzeko (nektarra eta polena) lehiatzen baitira intsektu fitofagoekin (Ballesteros eta Vásquez, 2007).

Ingurumen-utilitateak azaldu ondoren, (Aryal *et al.* 2020) egileak oinarri hartuta, ondoriozta dezakegu erleek, polinizazioaren bidez, onurak sortzen dituztela nutrizioan eta horrek zuzeneko eragina du onura ekonomikoetan.

### 3.2. Utilitate sozioekonomikoak

1982an Allen-Wardellek esan zuen erlezaintza jarduera ekonomikoki errentagarria, onuragarria eta egokia zela nekazari gazteentzat, ez zuelako hasierako inbertsio handirik eskatzen eta, beraz, bere gain hartu beharreko arriskua txikia zelako. Allen-Wardellek (1982) adierazi zuenez, haren abantailetakoa bat erlauntzak kokatzeko leku askorik behar ez izatea da, eta, gainera, jarduera honek erlezainari malgutasun handiagoa ematen dio denbora kudeatzeko, nekazaritzako eta abeltzaintzako beste jarduera batzuekin alderatuta (Hilmi *et al.*, 2011; Kumari, 2016).

Lur asko edukitzea ere ez du eskatzen, ezta jabetzakoak izatea ere (Gibbs eta Muirhead, 1998; John *et al.*, 2017). Era berean, erlezainaren finantza-segurtasuna hobetu dezakeen eta enplegua sortzen lagun dezakeen jarduera bat da, produktu eta zerbitzu ugari sortzen baititu, eta horiek diru-sarrerak handitzen laguntzen baitiote (Kumari, 2016). Bereizi egiten ditugu, alde batetik, erleek egiten dituzten eta erlauntzetan xede jakin bat duten ondasunak —gizakiak aprobetxatzen jakin dituenak—, hau da, «erleen produktuak» deiturikoa, eta, bestetik, gizakiak erleak erabiliz sortu direnak, hau da, «erleak produktu gisa».

#### 3.2.1. Erleen produktuak

Erleek askotariko produktuak egiten dituzte, besteak beste, ezitia, polena, erregina-jelea, argizaria, propolia eta apitoxina (Aryal *et al.*, 2020), eta bakoitzak funtzio espezifiko bat betetzen du erlauntzean: elikatzea (eztia, polena eta erregina-jelea), fabrika, biltegia, erreprodukzio-lekua eta komunikazio-sarea izatea (argizaria), babestea (propolia) edo defendatzea (apitoxina).

Produktu horiek ezaugarri paregabeak dituzte jatorri botanikoaren (tokiko flora eta nektar-iturria) (Bankova, 2005; Bankova *et al.*, 2000; Sforcin, 2016), geografikoaren (klima eta ingurumen-baldintzak) (Bankova *et al.*, 2000; Montenegro eta Ortega, 2013) eta erlezaintza-praktiken arabera (Ulloa *et al.*, 2010), eta osasunerako onuragarriak diren propietate nutritibo eta terapeutiko batzuk esleitzen zaizkie, besteak beste, antiinflamatorioak, antitoxikoak, antioxidatzaileak, anestesikoak, estimulatzaileak, bakterioestatikoak, bakterizidak, antiseptikoak, orbaintzaileak, antimikrobianoak, antitumoralak eta afrodisiakoak (Burdock, 1998; Duttman *et al.*, 2013; Khan *et al.*, 2007; Oršoli *et al.*, 2005) eta ziztadekiko alergia larriak dituzten pertsonak tratatzeko ere balio dute, apitoxinaren kasu zehatza (Schmidt eta Buchmann, 1992). Gainera, albaitaritzan ere erabil daiteke (Bankova *et al.*, 2000). Propietate ugari horiek direla eta, antzina-antzinatik erabili izan dira (Banskota *et al.*, 2001; Jagua-Gualdrón, 2012). Era berean, erleen produktuak lehengaitzat hartuta, gero eta gehiago eskatzen dira produktu naturalak. Horrek elikadura, kosmetika eta sendagaien industria bat garatzen laguntzen du (elikagaiak, kremak eta xanpuak, besteak beste) (Ahmad *et al.*, 2007; Duttman *et al.*, 2013; Garry *et al.*, 2017). Hori, Ocampo eta Boussyren (2017) arabera, garrantzitsua da batik bat erlezain

txikientzat, haien ekoizpen kopuruek ez dutelako bermatzen erlezaintza ekonomikoki iraunkorra izateko adinako errentagarritasunik, eta industria horiek, berriz, finantza-segurtasunean eragina duten aparteko diru-sarrerak sortzen dizkietelako.

### 3.2.2. Erleak produktu gisa

Erleak erle-material bizi gisan sal daitezke kolonia berri bat sortzeko (Krell, 1996), eta kasu horretan produktu bat dira berez. Baita polinizatzaile basatiek egindako polinizazio-zerbitzuak osatzeko saldu edo alokatzen direnean eta baratze-laboreak eta fruta-arbolak polinizatzeko erabiltzean ere (Madras-Majewska eta Majewski, 2016), nekazarien produktibitatea, kalitatea, errentagarritasuna eta diru-sarrerak handitzen laguntzen baitute (Ahmad *et al.*, 2007; Hilmi *et al.*, 2011; Klein *et al.*, 2003). Kasu honetan, polinizazioa ekoizpen-praktika bihurtzen da (Barfield *et al.*, 2015). Erleak munduko 107 labore mota garrantzitsuenen % 90 bisitatzegatik dira ezagunak (Klein *et al.*, 2007). Europan, labore nagusien % 84 intsektuen polinizazioaren mende daude neurri batean (Chauzat *et al.*, 2013 eta Greenpeace, 2014). Espainian, labore nagusien % 70 intsektu polinizatzaileen mende dago, eta, zerbitzu horren ondorioz, frutagintza sektorea eta fruitu lehorrak dira etekin handienak lortu dituztenak. Euskadin, berriz, kopurua % 67koa da (Greenpeace, 2014). Hori dela eta, gaur egun polinizatzaileek nekazaritzan duten garrantzia frogatuta dago, eta, horren ondorioz, animalia polinizatzaileekin egiten diren zerbitzu horiek maiz erabiltzen dira baratze-landaketa jakin batzuetako nekazaritza intentsiboan (piperra, tomatea, kuiatxoak), aire zabalean nahiz berotegian, bai eta fruta-arboletan ere (abrikotak, aranak, almendrondoak, laranjak, mandarinak). Kontuan izan beharreko beste alderdi bat, gaur egun arte behar bezala aztertu ez dena, erleen polinizazioak bioerregaien ekoizpenari egiten dion ekarpena da (Patel *et al.*, 2021). Beraz, balio ekologikoaz gain, polinizazioak balio ekonomikoa ere badu.

Halaber, erleak (helduak zein larbak) etorkizuneko elikadura-iturri gisa proiektatzen dira (Ghosh *et al.*, 2016). Europan, beste eskualde batzuetan ez bezala (Afrika, Asia, Australia eta Amerika tropikala), intsektuen kontsumoa oraindik ez dago zabalduta. Hala ere, haien propietateak eta ingurumen-alderdiarekin zerikusia duten beste onura batzuk direla eta, hala nola a) ur-kontsumo txikiagoa eta berotegi-efektuko gasen kantitatea ohiko ganaduaren kasuan baino txikiagoa, b) elikagai-kilogramo bakoitzeko sortutako intsektu kantitate handiagoa, c) hondakin biologikoetatik elikatzea, bestela berrerabilgarriak izango ez liratekeenak, eta d) animalientzako pentsuen iturri tradizionalen osagarri izatea (Halloran eta Vantomme, 2013; Pino, 2018; Ramos-Elorduy, 2004), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko azaroaren 25eko 2015/2283 Araudia (EB), elikagai berriei buruzkoa, indarrean sartu zen estatu kide guztietan, 2018tik aurrera, eta bertan intsektuak «elikagai berri» gisa sartzten dira.

Elikadura-ohituren oztopoa apurka-apurka gaintzen denean, Mendebaldeko kontsumitzailearen eragozpen handietako bat baita (Pino, 2018), intsektuak hazi eta biltzeak aparteko diru-sarrerak eta enpleguak sor ditzake, bai eskala txikian egiten bada, eta intsektu jangarrien hazkuntza eta salmenta negozio txiki bihurtzen bada, bai industria-mailan (Díaz, 2016). Testuinguru horretan, ezti-erlea lurrean gehien etxekotu den hirugarren espeziea denez (Tautz, 2007), mundu osoan eskala handiko

«mini-abelazkuntza» ustiategi/sistemetan hazia (Defoliart, 1995), historia luzea du intsektu-laborantzako beste hautagai batzuekin alderatuta (Aryal *et al.*, 2020). Giza elikadurarako sistematikoki esploratua izan da (Dufour, 1987), eta nutrizio-iturri bikaina izan liteke bere ekarpen proteiko handiagatik eta ohiko beste elikagai-iturri batzuek baino koipe gutxiago izateagatik (Finke, 2005; Ghosh *et al.*, 2020; Ghosh and Jung, 2016). Defoliarten (1995) arabera, eztitarako erleak esnetarako behien parekoak izan daitezke, esneagatik ez ezik, haragiagatik ere balioztatzen direnak, eta, beren propietateengatik prezio altuko gourmet-jaki gozo interesgarri bihur litezke.

Erleak gizakien eta/edo animalien kontsumorako erabiltzeaz gain, zenbait eskualdetan, Afrikan edo Indian adibidez, erlauntzak itxiturak/hesi naturalak sortzeko erabiltzen dira, eta hesi horiek laboreak basa-faunatik babesteko balio dute (Aryal *et al.*, 2020). Babes-behar hori gizakien eta animalia basatien (gehienetan elefanteen) arteko koexistentzia-gatazkatik sortzen da. Berriki egindako ikerketek agerian uzten dute erlauntzen itxiturak erabiltzea animalia basatien presentzia eta laboreetan eragiten dituzten kalteak gutxitzen lagun dezakeen metodoa dela (Nair eta Jayson, 2016; Scheijen *et al.*, 2019). Kalte horiek zuzeneko galera ekonomikoetan islatzen dira nagusiki (O'Connell-Rodwell *et al.*, 2000). King *et al.* (2017) egileen arabera, disuasio handiena erlauntzen okupazio-tasak handiak direnean gertatzen da, okupazio txikiaren aldean. Hesi/itxitura horiek jartzeak ez dio gehiegizko kosturik eragiten nekazariari (Nair eta Jayson, 2016); beraz, haien kostuak animalia basatien sor dezaketen kalte ekonomikoa konpentsatzen duela ulertzen da.

Intsektuei eta erleei produktu gisa egozten zaien beste erabileretako bat ikerketa farmakologikorako eta biokimikorako baliabide-iturri izatea da, landare, harrapakin eta harrapariekin izandako koeboluzioaren ondoriozko konposatu kimikoengatik batez ere (Neto *et al.*, 2006).

### 3.2.3. Erlezaintzaren inguruan sortutako zerbitzu osagarriak

Gainera, jarduera horretan aritzeak erlezaintzarako zerbitzu lagungarriak ematen dituzten beste industria batzuk bultzatzen ditu (Bradbear, 2009), hala nola erlauntzak fabrikatzea eta konpontzea, erlauntzak eta erlategiak mantentzeko produktuak, lanabesak eta tresnak merkaturatzea, produktu fitosanitarioak, biozidak, erlezainarentzako babesak, prestakuntza-jarduerak, izurriteak kontrolatzeko zerbitzuak, albaitaritza-zerbitzuak; horrek guztiak eskualde-mailan autoenplegurako eta aberastasuna sortzeko aukerak ematen ditu (Dolores-Mijangos *et al.*, 2017; Magaña *et al.*, 2012).

## 3.3. Utilitate soziokulturalak

Erlezaintzako jarduerak materialak ez diren beste erabilera batzuk sortzen ditu (ukiezinak), ongizate eta gogobetetze-terminoetan islatzen direnak, bai eta erlezaintzak gizarteei eskaintzen dizkien erabileretan ere (Aryal *et al.*, 2020; Famuyide *et al.*, 2014). Allen-Wardellek (1982) jarduera hau «harrapatzen» zaituen hobby gisa aipatzen zuen, praktikatzen duenari gozamina, poza eta saria ematen baitio (Caron, 2010; Jean-Prost eta Le Conte, 2007). Zentzu horretan, «gozamenagatik



edo bertatik bizitzeko erlauntzak ustiatzea zeregin zoragarria eta askotarikoa da, kolonien eraldaketari eta urtaroen bilakaerari jarraitzen baitio. Horretan ari denari eskuzko zein gogoetazko lan baten pozak ematen dizkio» (Jean-Prost eta Le Conte, 2007: 49). Horren ondorioz, azkenaldian goraka ari da hiri-erlezaintza, eta gero eta hedatuago dago munduko hainbat lekutan (Paris, Londres, Berlin, New York, Hong Kong, besteak beste) (Piorno, 2015). Praktika hori erraztu ahal izan duten beste arrazoi batzuk dira erleen munduko populazioa murriztea, gero eta joera neorural handiagoa izatea eta landa-balioak aintzat hartzea eta idealizatzea. Baita autohornikuntza eta laborantza propioen mugimenduek (gertuagokoak) bultzatutako korrontea ere, hirietan «terraza berdeak» ugaritzen laguntzen baitute, slow food mugimenduak eta baratza propioa duen gastronomia.

Hiri-erlezaintzari egotz dakizkiokeen abantailen artean, hiriguneetako landare basati eta landatuen polinizazioa hobetzea dago (Theodorou *et al.*, 2020), erleak hirietan mantentzen laguntzen duelako, pestizidarik erabiltzen ez den eta gizartea kontzientziatzeko ahalmen handia duen ingurunea baita (López i Gelats *et al.*, 2017).

Zenbait herrialdetan hiri-erlezaintzak gora egin duen arren, zailtasunak ditu bai araudiari dagokionez, bai animalien kontrola/kudeaketa eta segurtasunari dagokionez. Espainian ezartzeko oztoporik handienetako bat da araudiak zaildu egiten duela hiriguneetan erlauntzak jartzea, eskatzen diren gutxieneko distantziengatik. Coffmanen (2011) arabera, beste muga batzuk honako hauek dira: erleek herritarren artean sortzen duten beldurra, arriskugarritzat jotzen direlako, batetik, eta, bestetik, beren jabetzetan erlauntzak ezartzea onartuko duten enpresek eta erakundeek jarduera epe luzearako ezartzeko konpromisoa eskatzen dutelako, «nekazaritza-proiektu bat» baita, eta ez «erle maskotak» zaintzea (Coffman, 2011).

Hiri-erlezaintzak izan dezakeen beste eragozpen bat da erleak ibilgailuen trafikoak sortutako metal astunen eraginpean egoteak izan ditzakeen ondorioak (López i Gelats *et al.*, 2017).

Balio estetikoek (Vrabcová eta Hájek, 2020), espiritualek eta erlijiosoen (Bradbear, 2009; Hilmi *et al.*, 2011) gain, erlezaintzako jarduerari oro har egozten zaizkion onura soziokulturalen artean honako hauek nabarmentzen dira: a) elkarteak sortzea (Hilmi *et al.*, 2011); b) biomimetika edo inspiraziozko bidea (Aryal *et al.*, 2020; Halloran eta Vantomme, 2013), berrikuntza abiarazteko prozesu eta organismo naturalen ezaugarriak aprobetxatzean datzana, adibidez eraginkortasun energetikoko softwarea diseinatzeke, eta c) zooterapia, animalien laguntza bidezko errehabilitazio-terapian oinarritzen da, animaliak giza patologia fisiko zein psikikoen prebentzioan eta tratamenduan sartuta (De Campos, 2014). Praktika horren barruan sartzen dira animalia-produktu baten (nagusiki haragia, pozoia, odola eta beste produktu batzuen) edo animalia-beraren efektua erabiltzen duten gizakiari aplikatutako tratamenduak. Erleen kasuan, erlauntzeko produktuak erabiltzeari apiterapia esaten zaio (Díaz, 2020). Azkenik, d) erlezaintzako turismoa (apiturismoa), modalitate alternatiboa eta erlezaintzari balio erantsia eman diezaiokkeen zerbitzu berri eta berritzaileetako da (Aryal *et al.*, 2020; Montenegro eta Ortega, 2013; Pantoja *et al.*, 2017). Praktika hori «eztiaren ibilbideak/tour-ak» ezartzean eta erlategietara bisita gidatuak egitean datza, bisitarien erleen unibertsoa/izaera (alderdi biologikoak) eta

erlezaintza (ekoizpen-eredua) erakusteko (Arias *et al.*, 2015; Pantoja *et al.*, 2017). Zehatzago esanda, erakutsi nahi dira, besteak beste, erlauntzak eta erleak (langileak, erlamandoak, erreginak); beren jarduerak natura-ingurunean askatasunez nola egiten dituzten; landareak eta ekosisteman duten garrantzia erleen elikagai-iturri gisa; babes pertsonalizatuko produktuen eta azpiproduktuen, ekipamenduen eta materialen prozesamendua. Era berean, barne har dezake ikastaroak eta tailerrak egiteko aukera, hainbat gairen inguruan: produktuak atera eta prozesatu eta dastatzea, beste produktu batzuen fabrikazioa (kremak, kandelak, besteak beste), erabilera terapeutikoak, erreginak ekoiztea, landareen identifikazioa eta erleentzako eta ekosistementzako landare garrantzitsuak ereiteko jarduerak (Arias *et al.*, 2015). Tokiko edo hurbileko turismoa sustatzeko modu bat da, eta lagungarri izan daiteke erlezainaren sostengu ekonomikoan eta herritar guztien —eta, bereziki, ikasle eta zientzialarien— ezagutza areagotzean. Horrek ingurumen-hezkuntza, landa-ingurunearen ezagutza eta erlezaintzak nekazaritzarekin, abelazkuntzarekin eta giza elikadurarekin duen lotura areagotzen lagunduko luke (Aryal *et al.*, 2020).

Erlezaintzaren inguruko beste utilitate soziokultural batzuk, López i Gelats *et al.* (2017) egileek berrikuntza sozial gisa izendatutakoak, honako hauek dira: a) erleen autobideak, habitaten zatiketari aurre egiteko; horien helburua da urrats seguruak ematea, adibidez, hiriak zeharkatzen dituzten intsektuei, bidean elikatzeko eta babesteko guneak eskainiz; b) intseminazio artifizia, ingurunearekiko gogorrakoak diren erleak sortzeko; c) zientzia parte-hartzailea, herritarrak informazio jakin bat biltzeko tartean sartzean datzana; d) erlezainen coworking-a —erlezaintzako jardueran parte hartu nahi duten pertsonak tresnak, materialak, erlategiak edo informazioa partekatzen dituzte, besteak beste—, eta horrek coworkingean parte hartzen duten pertsonen arteko komunikazioak eta sinergiak areagotzen laguntzen du; e) erlauntzak babesean hartzea —eskuarki Gizarte Erantzukizun Korporatiboarekin (GEK) lotua—, zeinaren helburu bat izaten baita babes-emailea kalitate handiko produktu organikoekin saritzea, eta f) polinizazioa ondasun komun eta eskubide unibertsaltzat ulertzea, erleek eta erlezaintzak sortzen dituzten ingurumeneko zerbitzuak/kanpo-efektuak baloratzean datzana. Erle-ustiategien bideragarritasuna handitzeko balio dute.

### 3.4. Erlauntzaren utilitateen arteko erlazioak

Deskribatutako ondasunak eta zerbitzuak erlauntzeko produktutzat har daitezke, eta hainbat utilitate sortzen dituzte, ingurumenekoak, ekonomikoak eta soziokulturalak. Utilitate horiek ez dira estatikoak denboran zehar; izan ere, ikerketa, teknologia edo aldaketa kultural berriek beste erabilera batzuk ekar ditzakete. Ez dira, halaber, modu isolatu eta indibidualizatuan ulertu behar; gizakiak erabiltzen duen sistema konplexua dela eta, elkarren arteko erlazioak sortzen direlako, eta, ondorioz, zaila da bereiztea eta konpartimentu estankotzat hartzea. Sistema konplexu horrek ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen eta kulturaren arteko erlazioa sortzen du, eta utilitate ekonomikoak aurrekoak hartzen ditu bere baitan. Hala, adibidez, polinizazioaren zerbitzua (aldeztatik lan honetan ingurumen-zerbitzu gisa definitu duguna) elkarri lotutako hiru alderditatik uler daiteke: ingurumena (biodibertsitateari eta habitataren kontserbazioari egiten dion ekarpenagatik), soziokulturala (pertsonen

